

**Mari Karmen Garmendiarekin
elkar hizketa:
«Euskararen normalkuntzak gizartearen
normalkuntzaren baitakoa behar du»**

Soziolinguistikan objetitibitatea lortzea zail izan ohi da beti: anitzak diren gertaera eta errealitateen erritmo diferenteak jazo ahala, balorazioak tankera eskotakoak ateratzen dira, lagun/herri/gizarte baten lehena/oraina/geroa diferente diren neurri berean. Geurean, frankismoaren ondoko euforia eta gero, etsipenezko lurruna hedatu da hizkuntza dela eta, erakundeak hemengo jendez osaturik egonik ere, ezagupena eta erabilpena jaso ezinik gabiltzan honetan. Ohartu gara gizarte eragileak guk uste baino zailago direla aldatzen; instituzioen lanari berriz, ez diote denek aski erizten, nonahi ageri da kezka.

Mari Karmen Garmendiak, kargudun ikasiek bezala, beretik eman zigun, guk bidexka estuagotara sartu nahi genuen arren. Batera edo bestera, hona goiz hartakoa.



«Euskararen normalkuntzaren baitako jardun horrek gizarte normalkuntzaren baitakoa behar du, eta horrek, noski, joku arau batzuk ditu».

GALDERA: Egin dezagun Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia sortu zenetik honako balantzea eta bereziki zu zeu buru zaituenetik gaur bitartekoa. Zein da zure ustez urte hauetan instituzioetatik egin den lanaren balantzea? Zein dira lorpenak eta zein hutsuneak? Bestalde, eta hizkuntz normalkuntzarako prozesuak lan instituzionala herri dinamikaz osatzea eskatzen duenez, zein da zure ustez herri dinamikak lehenagotik ere baina urte hauetan bereziki burutu duen lana? Zein lorpenak eta zein hutsuneak?

MARI KARMEN GARMENDIA: Nik bereziki ni nagoen garaikoa dakit. 1985eko uztailaren 2an izendatua izan nintzen, beraz bost urte t'erdi luze xamar hemen nagoela.

Bi puntutan bilduko nuke balantzea, batetik corpus¹ plangintzaren alorrean egin dena eta bestetik status² plangintzaren alorrean egindakoa. Corpus plangintzaren alorrean, batetik, Euskaltzaindiarekin urte guzti hauetako lanaren ondoren 89ko urrian izenpetu zen hitzarmena, hori azpimarratu nahiko nuke. Bestetik

UZEIrekin 87an babespeko elkar-tetzat harturik izenpetu zen 5 urtetarako hitzarmena. Hirugarrenik, toponimia normalizatzeko izenpetu berria dugun beste hirugarren hitzarmena. Azkenik, zenbait atal berezitan egin diren ahaleginak, esate baterako komunikabide eta beste zenbait arlotako hizkuntzaren hausnarketa.

Euskaltzaindiari dagokion hitzarmena bete-betean sartzen da corpus plangintzaren alorrean. Euskaltzaindiak sorreratik bertatik, 1918tik aurrera eginkizun zituen lan haundi horiek bideratzeko hitzarmena izan da.

Garrantzitsua izan da erakundeen arteko akordio bati esker izenpetua izan dela. Beraz, Euskaltzaindiaren eginkizunak onartu eta hezurmamitzeko baliabideak jarri dira bai giza baliabidez eta bai diru baliabidez. Eta hor nski urtetarako lana dago.

UZEIrekin izenpetutako hitzarmenak zerikusi zuzen-zuzena du hizkuntzaren modernizazioarekin. Eta esan den bezala, 1987an eman zen dekretu bati esker izenpetu zen hitzarmen hau. Dekretu horrek hizkuntz plangintzaren alorrean zerikusirik duten erakundeak babespeko elkarte egiteko edo bihurtzeko aukera ematen du.

Toponimia alorrean esan beharra dago hitzarmen hori dirubide edo finantziabideetarako adostasunera iritsita Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Diputazioak eta Arabako Diputazioak izenpetua izan dela...

G.: Bizkaikoa egina dago, ezta?

M.K.G.: Bizkaikoa egina dago eta

ikerketa lana Deikerrek egin du. Egiteko dagoena ere, Deustuko Unibertsitateko Deikerrek horretarako duen espezialista taldearen bidez egingo du.

Bestalde, alor edo eremu bereziak aipatu ditut, esate baterako komunikabideen arloko hizkuntzaren erabilerrari dagokion hausnarketa joan den maiatzean, Hotel Monte Igeldo izeneko horretan egin zen; ihardunaldi batean aztertu zen era berezian, hemen bileraren bat edo beste egin da bagenuen, baina era berezian, eta orduko lanak akta modura oraintxe argitaratuko dira, orduan esandako guztiak jasotzen dituen liburuan.

Beste eremu bat ere aipatu nahiko nuke: oraintxe urte t'erdi Administrazio alorreko hizkuntzaren nondik norakoak eta aztertzeke beste ihardunaldi berezi bat egin zen, Herri Ardulararitzaren Euskal Erakundean, eta garrantzi handikoa izan zen. Bertaratu zirenek ere hala zioten, zortzi-hamar urteko lanaren ondorioak aztertzeke aukera on-ona eman zuelako. Orduko bai lanak eta bai egin zen azterketa, egin zen azterketa liburu batetan jasota dago.

G.: Hori argitaratuta dago.

Argitaratuta dago bai, Noski, horretan ez da agortzen dena, baina pausoak aurreraka doaz, gainera alor bakoitzean zerikusi zuzena duten pertsonen eta kasu askotan ardurdunen jarrerari eta lanari esker.

Beraz, corpus plangintzaren lerro nagusiak horiek izango genituzke eta statusari dagokionez, bereziki, hez-

kuntza alorrean egin den lana handia izan da. Noski, hezkuntza alorreko kompetentziak Hezkuntza Sailak ditu baina Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak eta Hezkuntza Sailak ereduaren ebaluaketarako hausnarketari aspaldi batean ekin zioten, 1983an, eta orduantxe hasiera eman zitzaion ikerketa hori izan da EIFE; dagoeneko hirugarren atala ezagutzen da.

«Garbi dago status plangintzaren alorran egin dena asko izanik ere eginkizun dagoena ikaragarria dela»

G.: Horiek elkarrekin egiten al dituzue?

M.K.G.: Hasiera batetan bai, geroztik Hezkuntza Sailean horretarako dau den teknikariek egiten dute. Hasiera batetan Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak Hezkuntza Sailarekin batera SIADECORI eman zion enkargu hori, eta lehenengoa horrela egin zen...

G.: SIADECOK egin zuen lehenbizikoa?

M.K.G.: SIADECOK egin zuen lehenbizikoa, Hezkuntza saileko teknikariek batera. Harrez geroz, bigarrena eta hirugarrena, Hezkuntza Sailak Euskara Zerbitzuak horretarako jarririk dituen teknikoen bidez egin ditu. EIFEz gain, Hezkuntza Sailare-

kin elkar lanerako aukerak izan dira. Egia da aukera horiek azken urte hauetan edo aurreko legealdian motteldu egin zirela, baina espero dut legealdi honetan berriro berritu eta indartuko direla.

Gainera gauza jakina da hezkuntza alorraz gain beste alor batzuk ere jorratu direla. Komunikabideen arloa esate baterako, eta beste zenbait arlo. Denetara ere, garbi dago status plangintzaren alor horretan egin dena asko izanik ere eginkizun dagoena ikaragarria dela, oso handia da eta gainera urte luzetako lana da.

G.: Hor, statusaren mailan, administrazioarena...

M.K.G.: Bai, beraz azkenengo urte hauetan, bereziki 86tik 90era bitartean, administrazio alorreko hizkuntz plangintza jarri da indarrean. Alor horretako lanari ekin 86ko udaran ekin zitzaion, hain zuzen pittin bat lehenxeago ekainaren 26an, Auzitegi Konstituzionalak bere ebazpena jakinarazi zuelako Euskararen Legeari buruz, eta behin ebazpen hori jakinarazi zuenetik aurrera Euskararen Legeak administrazio alorreko hizkuntz plangintzari edo, hobeto esan, hizkuntz normalkuntzari buruz esaten duena indarrean jartzea erabaki zen. Eta hain zuzen 86an aurrelana egin ziren. Horretan garrantzi handia izan zuen eremu horretako datu bilketak: administrazio alor guztietan egin zen bai toki-administrazioan, bai foru administrazioan, bai Eusko Jaurlaritzari dagokion administrazioan...

G.: Horiek dira udal bakoitzak bete beharreko inkesta haiek?

M.K.G.: Bai, hori da, bai. Orduan egin zen datu bilketaz gain, gure egoera zein zen jakiteko, planaren beraren oinarriak landu ziren, Legebiltzarrean horretarako bereziki sortu zen batzorde baten baitan eztabaidatu ziren, batzorde horrek azkenean bere ebazpena jakinarazi zuen, ebazpen kontsentsuatu izan zen gainera eta ondorenean, han erabakitakoak, bai Funtzio Publikoaren legean, eta bai ondoren etorri diren beste zenbait arautan jasoak gelditu ziren. Eta une honetan Autonomi Elkarteko udaletatik ehuneko larogeiak bere hizkuntz plangintza, beti ere, administrazio alorrean eginda duela esan dezaket

G.: Onartua ere bai?

M.K.G.: Foru Aldundietan Arabakoak ia bukatuta du. Gipuzkoakoak aste honetan bertan⁹ entregatuko du bere dokumentua eta Bizkaiko lana oso aurreratuta dago. Jaurlaritzakoa ere eginda dago. Aurrerantzean badira beste hiru atal bereziki tratatu beharrekoak, Legebiltzarrean ere hala erabaki zelako. Batetik osasun arloa, bestetik Ertzaintzari dagokiona eta azkenik hezkuntzari dagokiona. Noski, azken honetan, hezkuntzari dagokion honetan, egin den lana ikaragarria da, baina lehen aipatutako Legebiltzarreko ebazpen horretan esaten dena da hiru hauetako bakoitzak duen izaera bereziarengatik, batez ere gizarte izaera bereziarengatik, administrazio orokorrerako ezarri diren erizpide horiek egokitu egin behar direla. Orduan hori dago batetik eta bestetik oraingo 90-94 legealdi honetarako izenpetu den gobernu hitzarmenean ere jasota gelditu da...

G.: Bereziki gainera.

M.K.G.: Bereziki gainera, bai. Hirurek trataera berezia izango dute. Bakotzak berari dagokiona. Beraz, Ertzaintzari dagozkion lanak aurreratuta daude oso. Hezkuntzari dagokion eremu horrek bere bidea egin behar du eta Osasun Sailari dagokion eremu horretan lanak oraindik beste fase batetan daude, batez ere Osasun Sailak duen pertsonal kopuru ikaragarri horrengatik datu bilketa bera ere oso lantsua delako.

G.: Horretatik aurrera begira dituzuen asmoetara hurbilduko ginateke. Hezkuntza garrantzi handiko puntua dela aitortuz, ikus dezagun administrazioaren atala. Sortu zenetik hona Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak izan duen lanik inportantea perfilen ingurukoa izango zen seguru aski. Prozesua luzea izan da gainera...

M.K.G.: Bai, garrantzitsua izan da, bai.

G.: Zer balorazio egiten duzu prozesu guzti horretaz, lauzpabost urtetako prozesu horretaz. Has gaitetzen, atalka joateagatik, perfilen planetik, gero baloratuko ditugu gainerakoak.

M.K.G.: Beno, zer balorazio egiten duan? Ba nire ustez balorazioa onerako balorazioa da. Aurrenengo aldiz lortu ahal izan da gure eremu administrazioaren datuak jakitea, nola baiteko erradiografia edo argazki bat egitea: zenbat langile, non kokatuak, zein hizkuntza ezaguerarekin, zein eginkizun betez eta abar. Bestetik, aurrenengo aldiz gure historia guz-

tian, lortu da hizkuntzaren ofizialtasun hori administrazioan luze-zabaleko plan batean hezurmamitzea. Gainera Euskal Herri guztian noski, baina konkretuki Autonomi Elkartera lotuz, dauden hizkuntz egoera desberdinak ere kontutan hartu behar dira. Horregatik esate baterako, egin zen gauzetako bat izan zen, eta hori ezagutuko duzue, helburu mailakatuaren planteamentua. Mapa Soziolinguistikotik etorri zaizkigun datuen arabera helburuak, eta honetan behin eta berriz Fishmanek esan izan diguna aipatu beharra dago, helburu lorgarriak ezarri behar direla, eta helburu lorgarriak lortzen diren neurrian berriak planteatu behar ditugula. Hain zuzen egin nahi izan dena da lekuan-lekuko hizkuntz egoerari, eta kasu honetan portzentaiak eta zenbakiak ere erabili ditugu, zegozkion planak egitea. Bost urtetarako, eta beti ere bost urte horietan jarraipenerako eta neurketarako eta ebaluaketarako bideak jarritz. Beraz, non gauden orain? Ba orain gaude egoeraren argazkia edo erradiografia eginda, araututa, baliabideak jarrita. IVApek duen aurrekontuaren hazkuntza ikaragarria izan da, ehundaka milioi-koa izan da hain zuzen lan hauetarako. Orain bigarren fase batetan sarturik gaude, hartu ditugun erabaki horiek eta diseinatu ditugun plangintza horiek hezurmamitzeko garaian sartuta gaude.

G.: Zer esperantza duzu ikusita lau urte hauetako prozesua, ze hasiera batetan jarritako epeetatik dexente pasa dira ezta? Hor gertatu da ere PSOEek eskatu duela perfil O jartzea, egon dira negoziaketak, istiluak,...

M.K.G.: Bai, beno, egon dira negoziaketak, batez ere datu bilketak denbora handia eraman zuen.

«Helburu lorgarriak ezarri behar dira, eta helburu lorgarriak lortzen diren neurrian berriak planteatu behar ditugu»

G.: Diputazioetako eta Jaurilaritzako datuak biltzea askoz errazago izango zitzaizuen udaletakoak biltzea baino, asko dira eta...

M.K.G.: Bai, 247.

G.: Baina administrazio guzti horiek izan duten jarreragatik zer espero duzue aurrera begira?. Neketsua izango ote da lan hori praktikara eramatea? Izan ere, plangintzaren parte handi bat, errazena agian, egin da dago, lana bildurik eta plangintzak eraturik. Planak praktikan jartzeaz, orde, zer uste duzu, azken urteotako prozesuak ikusi dituzun neurrian?

M.K.G.: Bakarren batek gaizki ulertuta edo intentzio txarrez, ez jakin zergatik, edo despisteren batengatik, esan du bost urtetan ez dakit zer lortuko dugula. Nik argi eta garbi diot, euskal administrazioa bost urtetan ezin du inork euskaldundu, eta bestela ur bedeinkatu hori daukanak esan diezadala nola egin behar den; nik ez dut bitartean sinisten. Batetik, urte luzetako lana da, bestetik bost urterako epekako plana dago pen-

tsatuta, behintzat egiteko asmoa dago eta gero dudarik gabe hemen administrazioan bertan ari diren funtzionarioez gain arduradun politikoek zeresan handia dute eta baita herritarrek ere. Hau da, ez da batzuei, sektore bati bakarrik dagokion zerbait baizik eta hauxe bai dela sektore desberdinen uztarketak aurrrera atera lezakeen lana.

G.: Nola aurrikusten du Idazkaritzak fronte diferente horien uztarketa, esan nahi dut herritarrena beharbada gobernatzeko agian zailagoa izan litekeen gauza bat dela, joera asko egon litezkeelako. Politikoenari nola hel dakioke?

M.K.G.: Beno, politikoenari nola heldu dakiokeen... Jarririk daude gobernu hitzarmenean politikoen hizkuntz konpromisuari buruzko zenbait gauza.

G.: Hori lege bihurtzeko posibilitaterik badago?

M.K.G.: Hori Legebiltzarraren kontua da. Legearen zain egon gabe beste lan programa batzuk bultzatu dira ni hemen nagoenetik aurrera, eta gaur esan daiteke neure poz handirako plan honen ardura nagusia funtzio publikoan izan dutenek esate baterako euskaraz ez jakitetik EGA ateratzeko zorian bukatu dutela beren konpromisua, legearen zain egon gabe. Legeek zer esango duten zain egon gabe.

G.: Zer esan dezan saiatuko zarete? Legeak nolakoa izan beharko luke zure ustez?

M.K.G.: Legebiltzarrari zuzentzeko galdera da hori.

G.: Baina Hizkuntza Politikarako Idazkaritza nagusiak ezin al ditu proposamenak egin?

M.K.G.: Euskararen Aholku Batzordeak⁴ badu bere lege garapenerako batzordea, proposamenak egingo ditu, entzungo ditu eta bideratuko ditu. Ezin gara legea etorri zain egon. Legea etorri zain egon gabe erabakiak hartu edo laguntzak eskaini dira, lan programak burutu dira eta gaur egun emaitzak bistan daude, edo nork ikusteko daude.

G.: Baina arazo horiek nola planteatzen zaizkizue, alderdi politikoekin edo politikoekin bereziki, edo administrazioan ardura postuak dauzkatekin?

M.K.G.: Beno, administraziooko funtzionarioek badituzte beren hizkuntz prestakuntzarako planak eta ardura-dun politikoek ere beren hizkuntz prestakuntzarako aukerak badituzte. Orduan aukera hauek noski ezin dira murriztu, alderantziz, nere ustez sendotu egin behar dira, landu egin behar dira eta orain arte lortu diren emaitzak oso esperantzagarriak izateaz gain zenbait datu eman dигute nondik nora eraman behar diren esateko.

G.: Datu horiek taula batetan biltzeko moduan edo daude? Publikatuta daude? Izan ere, gai berria bait da hau.

M.K.G.: Bai, publikatu ez dira egin, baina datuak hor daude, ezagunak

dira eta, jakin nahi izanez gero, eska litezke.

G.: Uste dut informazio interesgarria dela.

M.K.G.: Bai, esate baterako, funtzio publikorako sailburuordeek eta bere zuzendariek, honetan zerikusi zuzen-zuzena izan dutenek, beren hizkuntzarekiko konpromisua gauzatu egin dute, eta hori da benetan esperantzagarria. Ezer ez jakitetik beren lanerako eta beren harremanetarako hizkuntza menderatzera iritsi dira. Horixe da niretzako jarraitu behar den edo landu behar den bidea, euskaldunzaharrak ahaztu gabe noski, bai zahar eta berrien hizkuntz konpetentziak landu egin behar dira. Izan ere, plan honetan oso garbi jarrita dago euskarak zerbitzu hizkuntza izan behar duela eta euskarak lan hizkuntza izan behar duela, baina hori ez da funtzionarioei dagokien gauza bakarrik edo politikoei dagokiena bakarrik, baizik eta batzuei eta besteei, denei dagokiena da.

G.: Gizarteari dagokion gaian sartzen ari gara. Orain artean 5 urteko iraupeneko plangintzaz aritu zara, gutxi gora behera legegintzaldiari dagozkionez. Baina aurrera begira helburu gisa duzuenaz, iparraz, galde egin nahi dizugu.

Asko zabaldu da azken bi urte hauetan elebakartasunaren inguruko eztabaida. Euskal Herrian Euskaraz-ek eta herri elebakarrek lurraldetasunezko elebakartasunaren inguruan egindako lanek alde batetik, eta zuk, Arrasateko beste berrogeitahamalau talderekin batera, izenpetu dituzun

elebakartasun funtzionalaren inguruko hitzarmenek bestetik, zerikusirik izan dute euskararen inguruan azken urte hauetan izan den eztabaidarik garrantzitsuenetarikoan. Horrek, Euskal Herrian euskara normaltzeko beharrezkoa dugun Plangintza Orokorren oinarrian euskaldunok euskaraz bizitzeko dugun eskubidea esan nahi al du, orain arte gaizki interpretatutako elebitasun orekatuaren kontzeptua gaingituz?

M.K.G.: Beno, lurraldetasunaren helburua zein den galdetu beharko litzateke, izan ere, Nafarroako "Ley del Vascuence" k lurraldetasuna ez du baztertu...

G.: Lurraldetasun eredu bat ezarri du.

M.K.G.: Oraintxe aitatu berri den administrazioko hizkuntz normal-kuntzarako plangintza honen bostgarren helburu mailakatu horrek, hain zuzen, euskararen erabilera bere osotasun guztian hartzen du, orduan euskaraz zerbitzeko eta lan egiteko aukerak bete-betean hartzen ditu. Arrasateko hitzarmena ongi ezagutzen dut eta euskaraz bizitzeko aukerak, bai erakundeekin eta bai herritarrekin geroz eta hedatuagoak eta sendoagoak lortu nahi ditu.

G.: Berriz ere galderara itzuliz: Sozio-linguistikako Mapa eginda dago, baina oraindik egiteko zarete Planifikazio Mapa bat. Zein da ordea bilatzen den eredua etorkizunari begira, zein eredu bilatzen ari gara edo garatzen ari gara Euskal Autonomi Elkartarako? Helburu mailakatuez gain zein da azken helburua?

M.K.G.: Euskaraz bizi izatea, herritarrok euskaraz bizi izateko aukerak geroz eta ugariagoak, geroz eta sendagoak eta geroz eta zabalduagoak izatea.

G.: Horrek esan nahi du hizkuntzaren normalizazioa lortzea dela helburua?

M.K.G.: Hizkuntzaren normalizazioa hain zuzen, behar bada, hizkuntzaren egunerokotasuna lortzea da.


G.: Eta nola definitzen da hizkuntza baten normalizazioa zuen ikuspuntutik Euskal Herrirako?

M.K.G.: Azken urteotan egindako lanak definitzen du hizkuntza normalizatzak guretzat duen esanahia.

G.: Horrekin zailtza bat dago. Zenbait soziolinguistak esaten du, zuri baino lehenago Iñaki Larrañagari egin genion entrebistan esate baterako, normalizazioak ezinbestean dakarrela berarekin nolabaiteko eksklusibotasuna, eta hizkuntzak normalizatuta egon behar badu ez da ukatzen herritarrek elebidunak izatea baina sozialki hizkuntza bat da nagusi, eta bestea minorizatua da edo besterik ez da, bigarrenik ez da.

M.K.G.: Nik esango dizut nire helburua zein den, edo nik ze ikuspegi dudan. Lehen esan dizuedana da eta ez dut besterik esateko. Hizkuntzaren normalizazioa niretzako euskaraz bizi izateko —eta era askotara, eremu askotan eta leku askotan bizi izan gintezke— aukerak hedatu, sendotu eta zabaltzea, horixe da.

G.: Eta iruditzen zaizu euskaraz



«Gehiengo batek onartutako legeek markatzen dituzten joku arauen baitan kokatu behar da elkarlana».

bizitzeko aukera hori erabatekoa izango litzatekeen Euskal Herri batean...

M.K.G.: Ez dago jakiterik. Hori geroak esango du.

G.: Zauden postuan zaudelako, postu politiko batetan alegia, galdera ez da gozoa...

M.K.G.: Ez dago aztiarena egiterik. Bakoitzak daki apustu horren alde egindako ahaleginaren berri. Hortik aurrerakoa geroak esango du.

G.: Ez, badakizu zer pasatzen den...

M.K.G.: Zer gertatzen den jakitea ez da zaila. Geroari begira egindako ahalegina da hizkuntzaren aldeko lana. Erantzun dizuedala uste dut eta

ez dut besterik esateko.

G.: Barka berriz ere berera itzultzea, baina euskaltzaleen artean garrantzi handiko gaia da hau, polemikak izanak dira, elebitasuna, elebakartasuna, bata ala bestea, aurkako ereduak ote diren...

M.K.G.: Eta eleaniztasuna. Zertaz hitz egin behar da gaurko munduan? Beste batzu ari dira hizkuntzaren ekologiari hitz egiten. Izan ere, nere ustez errezegi erabakitzen dira auziak, eta gainera errezegi erabakitzen dira sarritan hala komeni delako. Esan nahi dut: gauzak aztertzerakoan ikus dezagun luze-zabalean gaur zer gertatzen ari den; ez da kasualitatea MacKey batek hizkuntzaren ekologiari hitz egitea. Zergatik hitz egiten du MacKeyk hizkuntzaren ekologiari? Nik esango dizuet nire aukera zein den. Nik ez niretzat eta ez nire seme-alabentzat eta ez herritarrontzat, ez dut elebakartasunik nahi gaurko munduan eta horretan adibideak Euskal Herrian sektore guztietan dauden norbanakoak hartuta jar genitzake. Elebakartasun indibidualaren apostua uste dut gaur egun inor gutxi egiten duela.

«Azken urteotan egindako lanak definitzen du hizkuntza normalkuntzak guretzat duen esanahia: aukerak hedatu, sendotu eta zabaltzea da»

G.: Uste dut bi mailaz ari garela.

M.K.G.: Bai, bai, bat hori da, eta bestea, gizarte sarean gertatzen dena. Hurrengo galderara igaroko gara. Nire aukera edo nere konpromisua zein da? Euskaraz bizi izateko aukerak ugaltzea, eta hortik saiaturako gara. Hizkuntzaren normalkuntza, beste zerbait esan nahi baldin bada ere, hori da. Orain normalkuntzaren interpretazio horietan Iñaki Larrañagak agian berea du eta Ninyolesek ere berea, baita Aracilek ere eta Quebec-en oraintxe berriro argitaratu duten bilduma handi horretan ere normalizazioari buruz zenbait aipamen egiten da, eta joan den astean kataluniar batek esaten zuen, esate baterako, minorizazio kontzeptua ez duela onartzen eta Kataluniako literaturan izen handi bat da. Hor ere eskolak, eritziak, jarrerak, joerak, ñabarrak dira.

Horretarako, agian, mintegiren bat edo zerbait egin beharko litzateke eta bakoitzaren eritzia bota.

G.: Gertatzen dena da holako helburua jarrita hor denetariko jarrerak dutela tokirik.

M.K.G.: Arrasateko hitzarmenaren baitan badago normalizazio kontzepturik ala ez dago?

G.: Dudarik gabe, baina hori tartepausu bat da, edo helburu mailakatzeko horretan halako urrats bat. Hasiera honetan, halako adostasun bat lortzera jotzen duzu eta agian iruditzen zaizu orain batu gaitzaketen pausu horietan adostasuna lor daitekeela; uler daiteke ez interesatzea

aurrera begira postura garbiagoa hartzerik. Baina inpresioa badaukat...

M.K.G.: Oso garbia daukat, bai nirekiko eta bai besteekiko. Ikusi nahi ez duenak... ba bueno, beste kontu bat da.

G.: Gertatzen da, euskaltzaleen artean, eleaniztasun pertsonala inork ukatzen ez badugu ere, badagoela halako kezka bat etorkizuneko ereduez, eleaniztasun pertsonala sozialki nola gorpuzten den, munduan barrera honetaz zer esperientzia dagoen eta zein eredutarantz abia gaitezkeen. Garbi dugu denok ereduekin ezin joka daitekeela mimesi hutsez, baina errealtatearekin jokatzeko dugu. Suitza, Belgika, Quebec edo Finlandiak badute eredu bana lege batzuk ageri dituenak, eta ondorio batzuk ateratzeko eta helburu batzuk eratze-ko aukera ematen digute, eta behar bada hori ez dago hemen ongi definituta. Iruditzen zaigu, politiko zareten aldetik badagoela nolabaiteko eskubi-dea eskatzeko hori argitu egin behar dela, ea zentzu horretan bideratutako pausoekin denok bat gatozen, dudarik ez, gerta litezkeen adostasun eta desadostasunak barne, nahiz jabetzen garen administrazioan urrats batzu eman direla eta ari direla. Baina bada kezka bat eta duela gutxi arte beldur bat batez ere PSOE egon delako tartean eta pentsa daitekeelako horrek neurri batetan hipoteka dezakeela Idazkaritza Nagusiaren politika bera. Beldur hori gertatzen denez, norantz goazen galdera interesekoa iruditu zaigu; horretara zeto-rrin. Baina tira, hurrengo galderara igaro beharko dugu.

M.K.G.: Bai, bai bai. Beno, hurrengo galdera, hirugarrena, herri dinamikari buruzkoa zen. Herri dinamikaren beharra aipatu dugu, baita elkarlanarena, bestalde azken urte hauetan...

G.: Nola balora daitekeen herri dinamika edo herri ekimena, zentzu zaballean hartuta.

M.K.G.: Herri dinamikaren kontzeptua zein den argitu beharko litzateke. Izan ere ni herritarra naiz, nire ingurukoak ere herritarrek dira eta beno, nik dakidala herritarrekin batera ari gara lanean, orduan hori galdetuko nuke.

Elkarlanaren datuak galdetzen dizkidazue. Esate baterako, lehen aipatu ditudan corpus plangintza alorreko datuak eman ditut: adibidez, Euskaltzaindiarekin izenpetu den hitzarmenean herritarrek gaude eginkizun berezi batzurekin, buruzagitza dago, iker taldeak daude, espezialista diferenteak daude, Iparraldekoak eta Hegoaldekoak daude,... UZEIrekin beste hainbeste, UZEI ere herritarrek osatzen dute, Elhuyarrekin ere harremanak geroz eta aurrerago doaz, eta hitzarmen bat izenpetzeko zorian gaude.

Esate baterako, ez corpus plangintzaren alorrean baina bai status plangintzaren alorrean oraintxe bi urte, zuek ondo ezagutzen duzue, HIZGABErekin⁵ batera antolatu genuen Donostian administrazio alorreko kongresua. SIADeco esate baterako gurekin lankide da, bai Mapa Soziolinguistikoa egin zen garaian eta bai oraintxe bertan Euskal Herri osorako indarrean jarri den euskara-

ren ikerketa handi horretan Iparraldeko atala SIADECO ari da burutzen.

Gero herri administrazioetako plangintza ere, udalez udal egin da, Foru Aldundi mailan egin da eta Jaurlaritza mailan egin da. *Euskal Hitzen* adibidea hor dago. *Euskal Hitzek* etengabe jarraitzen du bere bidean 87ko udatik hona Euskal Herria, nahiz Ipar nahiz Hegoalde, Euskal Herri osoa harrapatu du eta hor ere herritarrekin batera jartzen da. Hain zuzen *Euskal Hitzen*...

G.: Herritarren eskariz askotan, ezta?

M.K.G.: Bai, beti. *Euskal Hitzen* solaskide esango genuke, aurkezpenetako solaskidea, beti Udala izaten da, hain zuzen herritarrek Udalaren bidez egiten du eskabidea, gure eritziz Udalak biltzen duelako herri hartako herritarren ordezkaritza. Esan daiteke Euskal Mundu Biltzarra egin zenean, ia bostehun lagunetako partaidetza izan zen eta noski, herritarrek ziren, eta beste hainbeste esango nuke Euskararen Aholku Batzordeak dituen lankideez ere. Lankideak herritarrek dira, ezta?

Orduan hor etengabeko harremana dago gizarte sare zabal batekin. Nire galdera hori da, herri dinamika hemen esaten denean justu-justuan zer esaten den.

G.: Bai, esaten duzun zentzu horretan. Hementxe daukadan hiru alderdien arteko gobernu hitzarmenean halaxe esaten da: «Dentro de las iniciativas de la propia sociedad un punto requiere consideración especial. Nuestra sociedad y nuestra

historia han sido prolifas en el surgimiento de asociaciones e instituciones culturales [...] el Gobierno Vasco deberá impulsar la reordenación de todas las entidades, instituciones y asociaciones que trabajan en ese campo [...]». Zentzu horretan, zentzu zabal horretan. Orain, beharbada hor badira erizpide batzu edo arreritzi edo jarrera batzu herri iniziatibaz sortutako elkarte edo erakunde batzuri buruz, batzurekin akordioetara edo elkarlanera iristeko, eta beste batzurekin berriz, izan liteke Gobernuaren jarreraz edo herri erakunde horien jarreraz edo biena, edo auskalo zergatik, baina ez dago horrelako elkarlanik. Hor adibideak ugari dira: oraintxe gogora datorkit euskalduntze alfabetatzeko ez bakarrik AEK, baizik eta orohar pribatu ditzen zaien baina kasu honetan herri ekimenean sartuko genituzkeen guzti horiek ere; *Egunkariarekin* gertatu den prozesua, eta, beno, pentsatzen dut orain gauzak aldatu egingo direla baina orain gutxi arte ikastolekin Hezkuntza Sailak izan dituen arazoak...

«Herri dinamikaren kontzeptua zein den argitu beharko litzateke. Nik dakidala herritarrekin batera ari gara lanean»

M.K.G.: Behin ere baino egoera hobegoan daude ikastolak, ezta? Esan nahi dut hor aldaketak izan direla. Nere eritzia behin eta berriz

azaldu dut. Bakoitzak badu bere eginkizuna, herri erakundeek⁶ badi-tuzte beren egitekoak eta gizarte zibilak ere bai. Orain, baita ere, eta honekin bukatzen dut hau, garbi dago joku arauak badirela eta ez direla asmatutakoak, baizik eta non-baitetik datozenak, eta kasu askotan joku arauak markatzen dituzte gehi-engo batek onartutako lege arauak, orduan horren baitan kokatu behar da elkarlan hori.

G.: Eta elkarlan hori gertatu ez den kasuetan iruditzen zaizu herri ekimen horrek joku arau horiek bete ez ditue-lako izan dela?

M.K.G.: Beno, ni ez noa orain atalez atal, ez dakit gainera nora eramango gintuzkeen honek. Nik esan dut he-mendik eraman den jokabidea zein izan den eta zein izango den. Hori behin eta berriz azaldu dut gainera. Orduan garbi-garbi ikusten dut guz-tiok behar gaituela euskarak, baina garbi ikusten dut ere, euskararen normalkuntzaren baitako ihardun ho-rrek gizarte normalkuntzaren baita-koa behar duela, eta horrek, noski, joku arau batzuk dituela.

G.: Bestalde, instituzioek beraien artean izan behar duten osagarritasu-na dago, Euskal Herria osatzen duten hiru zati administratiboetako bakoitza zuzentzen duten instituzioen artekoa batetik, eta goi, erdi eta behe maila-ko instituzioena bestetik, instituzio bakoitzak bere menpe dituen atal administratiboena ahortzi gabe. Nola daude instituzioen arteko komunika-zio horiek, horien elkarlana eta osa-garritasuna? Zer eritzi zenion Knorr euskaltzainak Strasbourg-eko na-

zioarteko konferentzian egin zuen proposamenari, hau da, flandiarrek eta Holandak duten Taalunie izene-koa bezalako erakunde inter adminis-tratibo baten sorrera? Non dago horrelako erakunde baten sorrerarako —euskararentzat beharrezkoa ba-da— arazo nagusia? Legeria ezberdi-nean, agian?

M.K.G.: Euskaltzaindiak eta herri erakundeen artean izenpetutako ho-rretan hain zuzen, Eusko Jaurlaritza, Nafar Gobernua eta hiru Diputazioak elkar hartuta izenpetu zen eta guzti horren inizatiba eta koordinazioa idazkaritzatik eraman zen.

«Aurrenengo aldiz iker-keta bera zazpi pro-bintzietan egingo da, or-duan aurrenengo aldiz izango dugu aldi berean eta materiale bera erabi-liz euskararen egungo egoeraren berri emango digun lana»

Gero UZEIrekiko hitzarmena dago, UZEIrekin dugun horretan aurreneko pausuak hemendik eman ziren arren, Nafar Gobernuak ere bere laguntza luzatzen dio UZEIri. Orain udazke-nean berritu beharra tokatuko zaigu, bost urtetarako izenpetu zen, eta ikusiko da balantzea egin ondoren zer nolatan izenpetzen den. Nik uste dut sendotzeko bidean jarriko dugu-la.

Iparraldeari buruz zera esan nahiko nuke: Euskaltzaindiarekin izenpetu genuen hitzarmen horri esker egiten den lan guztia Euskal Herri osorako dela, zazpi probintzietarako da lan hori. Autonomi Elkartetik joaten baldin bada ere diru laguntzarik handiena, lan hori euskal eremu oso osorako da.

Euskaltzaindiak bere programak ditu eta lan programa horietan bai Hegoaldeko eta bai Iparraldeko iker-tzaileak eta euskaltzainak ari dira lanean, beraz hor ez dago hemendik begiratuta inongo eskusibismorik edo. Alderantziz. Bestetik, Iparraldeari dagokionez, esan beharra dago *Euskal Hitz* erakusketaren inguruan egin diren lanak ere hor daude.

G.: Bai, izana da Iparraldean, UEUren eskutik edo.

M.K.G.: Bai, bai, Baionan UEUren eskutik, Maulen bertako Sü Hazia elkartekoaren eskutik, haiek eskatuta, euren lankidetzarekin eta Hendaian berriz Udalaren eskutik. Hor dago ikerketa lana. Aurrenengo aldiz ikerketa bera zazpi probintzietan egingo da, orduan aurrenengo aldiz izango dugu aldi berean eta materiale bera erabiliz euskararen egungo egoeraren berri emango digun lana: euskararen ezagutza, euskararekiko jarrerak eta euskararen erabileraren berri emango diguna.

G.: Olabuenagak 85ean egin zuenaren antzekoa...

M.K.G.: Beno, eman dezagun hura bezelaxe, ikerketa soziolinguistikoa izango dela baina hau lehengoaz gain

aurrerapausu bat izango dela. Hone-tan, bere elaborazioan zerikusi zuena izan du Euskararen Aholku Batzordeko demolinguistikazko azpi-batzordeak eta bestetik prestakuntza lanetan era berezi-berezian hemen bertan aritu ginen iazko urtean bai Richard Bourhis-ekin —Quebecarra da— bai Joshua Fishmanekin eta baita ere Andrée Tabouret-Keller-ekin. Orduan barruko ezagutzaile edo berezilarien ihardunaz gain kanpo-koen aholkularitza eta iritziak izan ditugu kontutan hau burutzeko.

G.: Erabilera ere neurtuko da?

M.K.G.: Bai, bai. Eta Euskal Herri osoan egiten ari gara.

G.: Statusarenera paseaz. Izan duzue elkarlanik administrazio ezberdinen artean?

M.K.G.: Bueno, gai horretatik ez daude oso aldenduta ez Euskaltzaindiarekin ez UZEIrekin egin diren hitzarmenak, alderantziz baizik. Lehen esan bezala, Euskal Herri osoa kontutan hartzen duten lan-programak bait dira.

G.: Bai, baina hori gehiago da corpusari begira. Baina esate baterako Hollandak eta flandriarrek duten Taalunie izeneko erakunde inter administrazioak statusa ere kontutan hartzen du. Nire ustez Iparraldearekin, han instituzio propioak ez dagoen neurrian zaila izango dela...

M.K.G.: Bai, gauzak asko aldatu dira, eta hain zuzen aipatu dudan ikerketa hau Euskal Kultur Erakundearekin batera egiten ari gara. Laburbilduz,

ikerketa honen proposamena hemen-
dik, Eusko Jaurlaritzatik Akitaniako
Kontseilu Nagusiari egin zitzaion,
Akitaniako Kontseilu Nagusiak eta
Eusko Jaurlaritzak elkarlanerako
duten hitzarmenean atal berezi beza-
la jarri zen eta hantxe erabaki zen
Hizkuntza Politikarako Idazkaritza
Nagusiaren solaskide Euskal Kultur
Erakundea izango zela eta Euskal
Kultur Erakundea da hain zuzen, eza-
guna da hau, bertako erakunde edo
elkarte euskaltzale eta abertzaleen
ordezkariak gain baita ere Kontseilu
Nagusiko eta Kontseilu Regionaleko
ordezkariak eta baita Estatuko orde-
zkariak hartutako erabakiz sortutakoa.

G.: Presentzia ere badute gainera.

M.K.G.: Bai, badute. Eta hain zuzen
bide horretatik doaz ikerketak.

G.: Eta Nafar Gobernuarekin perfilak
direla edo, aipatu dituzu hor beste
gai batzu, hezkuntzarena, komunika-
bideetakoak, elkarlanik ez al da?

M.K.G.: Begira, Idazkaritzak antolatu
dituen bilera, mintegi eta lan-ihardun
hauetan, guztietan beti konbidatuak
izan dira eta datuak hortxe daude.
Bai Euskal Herri osoko ordezkariak
nahiz gizarte zibiletik datozen orde-
zkariak, baita erakundeetako ordezkari-
ak, bereziki zenbait kasutan alderdi
politiko guztietako eta sindikatu
guztietako ordezkariak. Gero besterik
da, etortzerik izan duten edo ez du-
ten, edo etortzea edo ez etortzea
erabaki duten ala ez, baina hori beti
oso kontutan izan da eta aurre-
rantzean ere kontutan izango da.
Nafar Gobernuarekin harremanak
erabatekoak dira. Iparraldearekin ere

solaskidetza erabakiz doan heinean,
noski, harremanak ere sendotuz
doaz. Hori garbi dago.

G.: Katalunian gero eta nabarmena-
goak dira hizkuntzaren aldeko legeri
berri baten aldeko apostu politikoak,
eta baita horretarako ezinbestekoa
den ahalmen politiko edo konpe-
tentsialaren handitzea, eta han,
hemen bezalaxe, sozialki legeriak
markatzen duena ere ez dute erabat
bete. Euskal Herrian horrelako alda-
ketarik behar al dugu? Izan ere,
Euskararen Legearen 8.3. artikuloa
ezabatua izana ez al da, Eusko Jaur-
laritzak berak Madrilekin dituen lege-
aizien inguruan berriki salatu duen
moduan, arrazoi politikoengatik
juridikoengatik baino? Hala balitz, ez
al du merezi bide hori jorratzeak?

M.K.G.: Esan dut Euskararen Aholku
Batzordeak batzorde atal berezi bat
duela lege garapenekoak. Bertako par-
taide dira Andres Urrutia, Edorta Co-
breros, Jose Luis Aurtenetxe eta
beste zenbait legelari, horretan zuzen-
ean ari direnak, eta hain zuzen bere
eginkizuna horixe da: legediaren
garapena ikusirik bere proposamenak
egitea.

G.: Zer neurritaraino aurkitu duzu
mugarik Euskararen Legean? Epaitegi
Konstituzionalak ezabatu zuen 8.3
artikulu famatua ez dakit zer neurri-
taraino saihestua izan den edo...

M.K.G.: Ez, ez, saihestu ez da egin.
Hau da, lehen aipatu dut administra-
zioko hizkuntz plangintzaren bostga-
rren helburu mailakatu hori eta bost-
garren helburu mailakatu hori ezagu-

tuta aintzakotzat besterik hartzea ez dago. Euskara zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza izan daiteke.

G.: Bai 86ko Gobernu bipartitoaren akordioan eta bai oraingo tripartitoan ere asmoa ageri da erdarazko komunikabideekin, euskararen presentzia areagotzeko planak egiteko. Bururatzan zait, seguru aski prest ez daudenekin euskara erabiltzera behartzeko beharbada egon litezkeela arazo legalak. Nik ez dakit Aholku Batzordeak errekomendatzen baldin badu, edo legeren bat ateratzen bada non exigituko bait zaie, esate baterako —hipotesiekin ari naiz—, politikoei beren udalerriko perfilak betetzea, alegia, langileentzako aplikatzen diren eredu berak politikoentzako aplikagarri izan daitezela, zein neurritaraino hori izan litekeen Epaitegi Konstituzionalak edo Madriletik eragotziko litzatekeen iniziatiba bat. Zuk horrelako mugarik, kontutan hartzeko modukorik, nabaritu duzu zure lanean?

M.K.G.: Begira, hasteko, Euskararen Aholku Batzordeak aholkuak ematen ditu, ezin du exigitu. Esan nahi dut, Aholku Batzordeari dagokiona eman behar zaio, ez ez dagokiona. Ez duen ardurarik ez zaio eman behar. Bestetik gaur egungo legediak dioena betetzen esku bete lan dago. Hori oso garbi daukat, eta ez daukat ezpairik hori esateko. Nahiago nuke Euskararen Legea agortuta balego. Oraindik ez dago.

G.: Egia da, zentzu batean behinik behin Euskararen Legea gauza zabal bat dela.

M.K.G.: Zuk diozunez ez dakit, ez

bait naiz gauza Epaitegi Konstituzionalak esango lukeenaz orain jarduteko.

G.: Adibide bat zen. Orain arteko bidean ez al duzu nabaritu, ez al duzu izan muga inportanterik legediaren aldetik zuk eman nahiko zenukeen edo garatu nahiko zenituzkeen ildo batzuk garatzeko?

M.K.G.: Beno, ikusi besterik ez dago, dagoen legedia kontutan harturik zer egin den. Eta lehen zerorrek esaten zenidan, errezena egin da, orain zailena dator. Eta hori, noski, ez dago dekretuen baitan, baizik eta gu

«Errazena egin da, orain zailena dator. Eta hori, noski, ez dago dekretuen baitan, baizik eta gu guztion ihardunaren baitan»

guztion ihardunaren baitan.

G.: Hori da behin eta berriz zure adierazpenetan, elkarrizketa askotan, azpimarratzen dena, eta Gobernu hitzarmenean ere, behin eta berriz errepikatzen dena: mugarik garrantzitsuena euskarak aurrerapausuak eman ditzan gizartean bertan dagoela, jarrera epelean, edo borondate eskasean edo...

M.K.G.: Hori arazo handi bat da. Hori ez dago ukatzerik.

G.: Lehen aipatu duzun Richard Bourishek uste dut Deian⁷ egindako

adierazpen batzutan esaten zuela, perfilak ondo zeudela, baina behar bada ez zirela berak nahiko lituzkeen bezain altuak edo euskararentzako estriktagoak behar bada jarriko lituzkeela berak.

M.K.G.: Ez dakit juxtu-juxtuan hori esaten zuen, ez dakit, gogoratzen naiz zein elkarrizketa aitatzen duzun, Iñaki Olanok egindako bat aitatzen ari zara. Beno, begira, ez ditzagun nahastu Canada eta Quebec, hortik has gaitezen. Beraz, ez ditzagun nahas Canadian hango herri desberdinek duten hizkuntz egoera. Oso gogoan hartzekoa da hango ñabar-dura zenbaterainokoa den.

G.: Aipatzen nuen hark honi buruz, Euskal Herriko egoerari buruz esandakoa...

M.K.G.: Nahiago dut testua hartu, ez bait naiz gogoratzen.

G.: Nik esan nahi dudana da ea zer neurritaraino perfilak hola atara diren benetan horixe bilatzen zelako ala...

M.K.G.: Zerk galerazten dit neri edo zerk galerazten digu guri denda batera joan, jatetxe batetara joan, zenbait lekutara iritsi edo lagunartean bertan euskaraz egitea? gauza jakina dagalerazpenak egon daitezkeela baina askotan galerazpenak geurok sortutakoak dira. Hau da, ez ditzagun zaku berean sar galerazpen guztiak. Gaur egun galerazpen diren zenbait ez lirateke galerazpen izango baldin eta herritarren hizkuntz leialtasuna sinbolikoa izateaz gain hizkuntz leialtasun pragmatikoa balitz.

«Bestetik gaur egungo legediak dioena betetzen esku bete lan dago. Hori oso garbi daukat, eta nahiago nuke Euskararen Legea agortuta balego. Oraindik ez dago»

G.: Bai, dudarik gabe. Baina...

M.K.G.: Horrek indarra hartzen duen heinean eta aurrera egiten duen heinean giza jokabideak ere, gizarte-ko jokabideak ere aldatu egiten dira.

G.: Uste dut hor ere zuk esan duzun bezala gauzak bi zaku desberdinetan daudela. Bat da dudarik gabe hizkuntz leialtasun epel hori, nik uste horrekin denak garela oso konziente, zein garrantzitsua den hori indartzea eta horri buelta ematea. Baina uste dut kontrara ere badela; gu gaur —adibide xume bat da— ateko ertzainarekin erdaraz egin behar izan dugu, eta beno, nik lagun batekin erdaraz egin nezake noizbait, eta hori nire esku dago, baina beste askotan euskaldunek egiten dugun ahalegina eta gero, erdaren errealitatea da aurre egiten dio-na, eta hori ez da hizkuntz leialtasunaren arazo bat, baizik eta gizarte-ari...

M.K.G.: Horregatik, hain zuzen, hartu ditugu administrazio-ko neurri horiek. Horregatik, hain zuzen, hezkuntzan hartu zen hartu zen erabakia

«Gaur egun galerazpen diren zenbait ez lirateke galerazpen izango baldin eta herritarren hizkuntz leialtasuna sinbolikoa izateaz gain hizkuntz leialtasun pragmatikoa babiliz»

garai hartan, horregatik, hain zuzen, EITB sortu zen, horregatik. Horrek neurri jakinak eskatzen ditu eta neurri jakin horiek hartu dira hartzen ari dira eta hartuko dira. Baina neurri horiek ere eta lan programa jakin batzu ezartzea ere ezin da era isolatuan egin. Lehen esaten nuen: hizkuntz leialtasun horrek, hizkuntz leialtasun sinboliko izatea ez du aski, hizkuntz leialtasuna haurren izenetan neurtzeak izan lezake bere garrantzia, zerbaiten adierazgarri da, baina izan lezake bere arriskua ere; gutxitxo da. Hori bakarrik ez da aski, hau da, herri batek, biziko bada, lehen esaten nuena, euskaraz edo berdin zait, Quebec-en frantsesez esango dute eta Bretaña bretaineraz esango dute, ezta? Hau da, herri batek hizkuntz aukerak, euskaraz gure kasuan, bizi izateko aukera horiek areagotu, sendotu, normaldu egunerokotu egin behar ditu. Ez dugu ezer egingo baldin eta guk, beno, herri batek edo herritarrek, neurriak hartzerakoan, eman dezagun bere hezkuntza erabakitzerakoan, hizkuntzaren aldeko diskriminazio positibo hori egiten duen irakas sistema onartzen

ez badu; edo komunikabideen arloan hartu diren erabaki, beti ere aldeko erabaki horiek, behar bezala onartzen ez baditu, eta abar luze bat. Hau da, ekimen horiek uztartuta joan beharko lukete edo elkarren pefear joan beharko lukete benetan erabakigarri eta, nola esango nizuke, emankorrak izan daitezen.

G.: Baina badakizu zer gertatzen den? Beharbada zuk egiten dituzun adierazpenak gizarte osoarentzako dira, baina euskaltzale militante sentitzen garenok, leialtasun hori badugula pentsatzen dugunok, eta nik uste dut giza-sail nahiko kontutan hartzeko modukoa dela, nahiz eta minoritario izan...

M.K.G.: Bai, bai.

G.: ...halako mina hartzen da sentitzen denean edo entzuten denean erantzukizun nagusia gure esku da goela.

M.K.G.: Denon esku.

G.: Bai, denon esku. Baina gero —zerorrek aipatu dituzu ereduak—, irakaskuntzaren kasuan aurkitzen zara gurasoek euskarazko irakaskuntza hautatu nahi izan dutela beren seme-alabentzat eta Hezkuntza Sailak berak traba pila bat jarri diela... Hezkuntza Sailak zenbat aldiz egin duen azken urteotan —beharbada PSOEren praktika bat izan da, baina azken finean instituzioetatik garatu den praktika bat izan da—, aukerak murriztea, eta, nahiz eta ilegala izan, alde zaureratik esatea: «eskola honetan bakarrik A eredu», eta gurasoak joan: «baina guk B edo

D eredua nahi dugu», eta irakasleak edo zuzendaria erantzun, edo Delegazioak berak: «ez dizuegu eman-gu». Eta horrelako zenbat eta zenbat.

M.K.G.: Bai, bai, batzuk izan dira. Ordea, koka ditzagun bere lekuan traba horiek eta ikus dezagun oihartzuna behar luketena baino gutxiago izan duten.

G.: Dударik gabe.

M.K.G.: Behar luketena baino gutxiago izan dute. Eta bestetik, Hezkuntza Sailak argitaratu berria du hamar urteko balantzea, irakas sistemaren balantzea. Eta orduan ikus dezagun hor esate baterako ereduen bilakaera zein den. Zein ari da ba galtzen?

G.: B eta A ereduak⁸.

M.K.G.: Hori ba. Eta gure piramidea nola ari zaigu gelditzen?

G.: Baina ematen du hori gehiago dela herritarrek, euskarazko irakaskuntzaren aurkako Hezkuntza Sail bat eduki arren lortu duten zerbaite dela. Ematen du...

M.K.G.: Ez, barkatu, hori generalizatzeari ezin onartuzkoa da. Hasteko, eredu horiek nondik planteatu ziren, zer bilakaera izan duten, zein baliabide jarri den,... Eta esan dizut izan diren trabak. Koka itzazu behar den lekuan.

G.: Beste gai batetara igaroz; berriki ezagutzea eman den nafarren hizkuntz jarrerari buruzko ikerketak Euskal Herri osoan neurri haundiagoan

edo txikiagoan kontutan hartzeko moduko oso arazo garrantzitsuen aurrez-aurre jartzen gaitu: gure herrian, orohar, badira euskaltzale sutsuak, epelak, axolagabeak, euskararen aurkakoak eta etsai amorratuak ere; zein da sektore horietako bakoitzari zuzendu behar zaion diskurtsoa? Zer mezu mota zabaldu beharko liokete herri guztia instituzio publikoek eta nolakoa herri-erakundeek? Zer deritzazu Nafarroako jarrerari buruzko ikerketaren emaitzei?

M.K.G.: Beno, nik ez dut behar adinako daturik hori juzgatzeko. Desadostasun nabarmenak daude, gauza jakina den bezala, eta nik neronen eritzia aipatu dizuedan ikerketa bukatutakoan emango dut, Euskal Herri osokoa egiten dugunean, oraingoz ez da...

G.: Ertzaintzan eta osasungintzan ez dakit, baina irakaskuntzan hori nabaritu da, nabaritu da asko, euskalduntzeko prest ez dauden irakasle horien piztu espezifikoaren zenbaiterakoa den eskolen barruan. Ahoz bai, euskararen aldeko, baina gero praktikan beste jarrera bat daramatela erabat. Kezkatzekoa da Nafarroan bereziki agertu diren datu horietan...

M.K.G.: Hor balorazio desberdinak izanik, uste dut beraiei dagokiela, beraiek ordaindutako ikerketaren eritziak eta zerak ematea, Euskal Herri osoko datu bilketa bukatu eta azterketa egiten denean, orduan emateko gauza izango naiz, ez da gehiegi luzatuko eta.

G.: Aurrera begira daukazuen asmoak, kontsentsuaren inguruan eta

bestela ere?

M.K.G.: Uste dut hemen lan handi bat daukagula Fishmanek odol isuria deitzen duen hura eteten. Galera eten beharra, hori garbi, eta transmisioa ziurtatu beharra. Eta hor noski, galera eteteko zerk jokatzten duen, horretan gauza batzuk oso jakinak ditugu, beste batzuk ez hainbeste. Lehengo egunean Parisen, Expolangues-en⁹ Kataluniako irakaskuntza arloan katalunieratzearen ardura nagusia duenak esaten zidan: «begira, hizkuntzaren ezagutza Katalunian behin ere baino haundiagoa da, ezagutzaileak ugaltzen ari dira eta kezka ikaragarria erabiltzaileena da». «Zer gertatzen zaizue?» esan nion. «Ba begira: ezagutzaileak asko, erabiltzaileak gutxi».

G.: Zenbatekoa da erabilera Katalunian?

M.K.G.: Hori ere aldatu egiten da lekuen arabera, ez zidan daturik eman baina beti aitortzen duten gauza bat da, leku batzuetatik besteetara alde izugarriak dituztela. Orduan galera etete horrek ikaragarritzko garrantzia du.

G.: Zein inizatiba uste duzu gara daitekeela transmisioaren arloan?

M.K.G.: Ezagutzen duzue Fishmanek Bilbon eman zuen hitzaldia? Eskola kokatu egiten du guzti honetan. Hau aipatzen nizuen zenbait garaitan zera uste izan genuelako, irakaskintza arloa eskuratzen bagenuen —ikastoletan eta, orain dela ia hogeitamar urte eta gu baino lehenago beste batzuk egindako ahalegin guztiak

hortik zihoazen—, bazirudien irakaskuntza euskalduntzea ia...

**«Programa berri bat izango da, status plangintza-
ren barruan lan mundua-
ren alorrari ekin nahi
zaio»**

G.: Erabakigarria izango zela.

M.K.G.: Hori da, hori da. Sinisturik geunden eta Fishmanen erreflexioa oso oso interesgarria da, hain zuzen horixe planteatzen duelako. Eskolak noski, badu bere lekua, baina bere lekua ez pentsa gero... Orduan, dudarik gabe, horrek garrantzi izugarria du baina ez da aski. Horregatik, berriro diot, garrantzi izugarria du erabilera sustatzeak. Eta euskaldun-zaharraren sendotasunak, gure betiko arloetan erabilera sustatzeko ikaragarritzko garrantzia du. Komunitate euskaldun horren sendotasunak ikaragarritzko garrantzia du.

Ezagutza, noski, bermatu egin behar da, horregatik du garrantzia irakaskuntzak, horregatik du garrantzia euskalduntzeak, baina, eta Kataluniako esperientzia ere nonbait hortik doa, ezagutza bermatzeak ez du berez erabileraren ziurtasunik ekartzen. Orduan, ezagutza bermatu behar da eta erabilera sustatu behar dugu.

G.: Plan konkreturen bat garatzen ari zarete erabileraren alorrean?

M.K.G.: Lehendik daudenez gain, lan munduari buruz saio berezi-berezi bat egin da, Euskararen Aholku Batzorde eta Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiaren artean, eta datorren legegintzaldirako lan programak indarrean jartzera goaz. Hiru sektoreetan, hau da, lehena edo nekazaritza, arrantzu alorrean, industria mailan eta zerbitzu mailan. Zerbitzuetoakoak bizi garen munduan ikaragarritzko garrantzia du eta oso esparru zabala da, hori sartzan dira merkataritza arloa, denda eta komertzio eta gaitzontzekoak, sartzan dira banketxe eta kutxa zerbitzuak, garrantzi izugarria du. Horretarako bihar bertan³ dugu bilera Elhuyar-ekin, hitzarmena izenpetzera goaz. Programa berri bat izango da, status plangintzaren barruan lan munduaren alorrari ekin nahi zaio.

G.: Hor alfabetatze tekniko deitu zaion hori dago.

M.K.G.: Ez da aski alfabetatze tekniko. Noski, bere garrantzia badu, ezagutzaileak prestatzen dituzulako, hau da, hizkuntzaren premiez jabetu eta horretarako gaituak dauden pertsonak edo teknikariak prestatzen dituzulako baina noski, hor ere lehen esaten nizuena, eskema bera da, ezagutza bermatu behar duzu, baina erabilera sustatu egin behar da, ezagutzaileak izateaz gain erabilera sustatu egin behar da.

G.: Elhuyarrekiko akordioa zer da, euskarazko zirkuitoak osatzeko, edo lan hizkuntza bezala lan munduan planak egiteko?

M.K.G.: Gai honetarako Euskararen

Aholku Batzordeak bere azpibatzerde berezia du, lan munduari dagokion batzordea. Bertako partaide Xabier Urizar, Dionisio Amundarain eta Andoni Sagarna izan dira beste zenbait lankiderekin —guretik Joxean Urdangarin—, eta orain Elhuyarrek izenpetuko dugun honen bidez hiru sektoreak hartuko ditugu kontutan, esperientzia piloto bezala planteatuko ditugu, ia datu bilketa dena bukatuta dago eta orain...

G.: Esperientzia piloto horiena edo orokorra?

M.K.G.: Orokorra, orokorra noski. Eremu bakoitzak berari dagokion datu bilketa eginga du, eta bestetik hitzarmen konkretu honi esker Idazkaritzan horretarako dauden pertsonenez gain Elhuyarrek beste bi lagun izango ditu honetarako bereziki jarriak. Beraz, aurtengo urtean neurri jakinak hartuko dira horretarako eta legegintzaldirako programa burututa geldituko da, lan munduko hizkuntz normalakuntzari dagokionean.

G.: Ez dakit zer garrantzi duen zure ustez, baina EKBren betiko aldarrikapena izan da plangintza orokorrarena. Ba al dago horrelako plan orokorrik, esan nahi dut, sail guztiak bilduko dituenik edo asmorik horrelako zerba it burutzeko?

M.K.G.: Lehen tasunak markatu behar dira, denak batera egiterik ez dago.

G.: Hain zuzen, berez plangintza orokor bat lehen tasunak markatzea ere bada.

M.K.G.: Horregatik. Orduan, legeak dioen beste eginkizunetako bat, lehen zeuok aipatu duzuen hizkuntz plangintzarako mapa burutzea izango da, eta hain zuzen mapa horrek bere baitan bilduko ditu urtez urterako lan eremuak eta baita lan eremu bakoitzari dagozkion helburuak, baina beti ere lehen esaten genuen hori: galera etetearen garrantzia ikaragarria da, eta noski, ezagutza bermatzeaz gain, erabilera sustatzea.

G.: Noizko espero duzue planifikazio mapa hori izatea? Teorian Soziolinguistika-Maparen gaian egiten da, beno, horren ikaspideen gaian...

M.K.G.: Bai. Soziolinguistikazko Mapa berri egingo da, martxoan egingo bait da 91ko erroldari dagoen datu bilketa. Galdera berri bat sartu da. Nafar Gobernuak egingo dituenak eta hemengoak berdinak dira, eta datu bilketa horrek bide emanngo digu 86ko Soziolinguistikako Mapa eguneratzeko. Hala dago erabakita eta noski eguneratze horren ondorenean hizkuntz plangintzaren mapa egingo da.

G.: Oraindik urte batzu igaroko dira, ezta?

M.K.G.: Beno, nik ez dut uste urte batzuk pasako direnik, uste dut oraingo legegintzaldian burututa geldituko dela, dudarik gabe gainera.

G.: Nola baloratzen duzu gaur egun giza-sail euskaltzaileen artean dagoen elkarlanik eza? Zer eragin onuragarri edo kaltegarri ekarri dio euskararen aldeko mugimenduari orain hiru urte sinaturiko Ajuria-Eneako itunak? Eus-

kaltzalegoaren baitan zabaldurik dago jarrera politiko ezberdineko euskaltzaileen artean 'zubiak' eraikitzearen komenigarritasuna; zer deritzozu jarrera horri eta, egoki eriztekotan, zein da zure ustez horretarako bidea? Izan ere, askotan entzuten da gaur egun politikazko aurreritziak gailentzen zaizkiela euskararen premiei...

M.K.G.: Beno, esana dago hemendik egin den lanaren jarrera edo lan horren oinarrian zegoen jarrera, eta aurrerantzean izango den azadibideak jarri dizkizut. Hemen, alor desberdinetan gainera, bai corpus plangintzaren alorrean eta bai status plangintzaren alorrean, behin eta berriz aldarrikatu izan duen hori gauzatzen saiatu gara: elkarlanerako deia, baina dei hori noski ez airean, baizik eta akordio eta lan programa jakinetan. Horretan saiatu gara eta aurrerantzean ere horretan segitzeko asmoa dugu.

G.: Idazkaritza alde batera utziaz, nola ikusten dituzu zuk zeuk herri mailako euskara elkarte ugaltzen ari diren horiek, zer garrantzi dutela uste duzu? Jo dezagun, bat edo beste aipatzearen Arrasateko AED, beno azken urte hauetan hainbat herritan Tolosako Galtzaundi, edo Donostian bertan sortzen ari dena bezalako elkarteak: Aretxabaleta, Oñati, Bilbo, Durango, Agoitz, Bergara,... Espe-rientzia sorta ederra dago hor barrena.

M.K.G.: Helburuak oso garbi behar dute eta joku arauak ere bai. Hau da, ia-ia amets bat litzateke, baina nik nahiko nukeena da behintzat joku arauak garbi izatea, eta joku arau ho-



«Hezkuntza Sailarekin elkar lanerako aukerak aurreko legegintzaldian moteldu egin ziren, baina espero dut orain berriro berritu eta indartuko direla».

riek noski helburu garbi batzuren baitan izatea, besterik ez dut nahi. Nik uste dut Arrasatekoa oso eredugarri dela eta beste zenbait egitasmo eta ekimen ere oso aintzakotzat hartze-koak direla. Onartzen ez dudana, hori ere behin eta berriz esan dut, hizkuntz politikaren aitzakitan beste zenbait gauza lortu edo bideratu edo ezarri nahi izatea da.

G.: Kasuak gertatu direla iruditzen zaizu?

M.K.G.: Denok ezagutzen ditugu. Hori ezin da onartu. Behin eta berriz esan dut eta badakit zaila dena, baina euskarak elkar bizitzarako

lokarri behar du eta nik uste dut hortan oso leialak izan behar dugula, hizkuntza beraren mesedetan edo hizkuntzaren etorkizunaren mesedetan. Orduan, zenbait aldarrikapen eta, ez dira inondik inora mesedetarako, alderantziz, gaitzerako dira.

G.: Beharbada honelako elkar hizketa batek ez du gauza handirik ematen kasuistikan sartzeko, baina uste dut hor seguru aski eztabaida handiak izan litezkeela. Hain zuzen, horrelako akusazioak ere...

M.K.G.: Ez dut akusazio bezala esaten, esaten dut nere kezkatako bat bezala, eta ez diot etiketarik jartzten.

«Lehentasunak markatu behar dira, dena batera egiterik ez dago»

G.: Esan nahi dut kezka hori esparru guztietako euskaltzaleek daukagula. Batzuren ustez Gobernuak dabil horrelako jarreretan, alegia, interes politikoetara makurtzen den hizkuntz politika garatzen; badago alderantzizkoa ere, zerorrek igertzen duzu.

M.K.G.: Nik hala ere garbi esango dizut: Euskararen Legeak Legebiltzarrean gehiengo baten onarpena izan zuen. Gauzak aldatzen ez diren artean —agian egunen batetan aldatuko dira—, gaur-gaurkoz joku arauak hortik markatzen zaizkigu.

G.: Iruditzen zait Euskararen Legea gauza nahiko zabala dela eta euskaltzaleen artean baten bat ez badago konforme Euskararen Legearekin, gehiago izango dela nahikoa iruditzen ez zaiolako, kalterako edo txarra iruditzen zaiolako baino. Baina, hain zuzen ere, zabala delako eta aukera asko ematen duelako, eta zerorrek esan duzun bezala oraindik jorratu beharreko bide asko hortxe dagoelako, gehiago da jarrera arazo bat edo jokabide problema bat, Euskararen Legeak izan dezakeen arazo bat baino. Esan nahi dut, ereduak legea hor dago, perfilen dekretua hor dago, Euskararen Legea hor,... Baina gero, eguneroko polemikak, edo gatazkak, edo elkarren arteko istiluak, euskaltzaleen arteko istiluak sortzen dituenak ez da hainbeste legeak diolako,

baizik eta legeak eskaintzen dituen aukera zabal horien artean praktika konkretuak bideratzen direlako. Adibide konkretua da, zein haserre dabilzan euskalduntze alfabetatze-koak ebazpen berria dela eta, homologatuak ez daude konforme orain arte aplikatu zaien ereduarekin, li-break desagertzera omen doaz, eta orduan horrek sortzen du berez oso baldintza eskasetan lanean ari den jendearen artean izugarritzko etsipena, berez laguntza etorri beharko lukeen lekutik, legeak behartzen ez duen jarrera datorrelako, beraien ustez behintzat jarrera oker bat eramaten ari delako. Irakaskuntzaren, komunikabideen, Egunkariaren kasuak hor daude. Iruditzen zait kasu asko daudela eta ez da hainbeste lege problema bat, baizik eta praktika problema bat. Hortik beharbada itzultzen gara lehen hitz egin dugun elkarlanera, edo zein erizpideren arabera elkarlana kasu batzuetan bai, beste batzuetan ez. Susmoa badaukatzeko ez dugula nahiko biderik elkarrekin komunikatzeko edo elkarlanerako.

M.K.G.: Nik ez nuke esango hainbeste elkarlanerako kanalik, beharbada komunikazio arazoak.

G.: Bai. Iruditzen zaizu horiek konponduko balira aurrera begira espezializatuak egon gintezkeela?

M.K.G.: Beno, luze-zabaleko hausnarketa egin behar da. Gauzak itxura batean oso sinpleak dira, eta beste batean ez dira batere sinpleak. Nik uste dut elkar hizketak ez duela kalterik, baina bestetik lehen esaten nuen: joku arauak ere oso kontutan

hartu behar dira eta joku arau horiek maratila bat baino gehiago izan deza-kete.

G.: Beste zer edo zer gehitu nahi baduzu...

M.K.G.: Ez, ez dut ezer berezirik.

OHARRAK:

1.— *Corpus*: hizkuntzaren barne izaera, izaera linguistikoa: terminologia, deklinabidea, aditza, sintaxia,... Corpusaren normalizazioaz ari garelarik, aspektu guzti hauen standartzazioaz ari gara.

2.— *Status*: hizkuntzaren alderdi soziala: erabilpena, prestigioa, gizar-tearen egituraketa-funtzioak, legediaren alorra,...

3.— Elkar hizketa Otsailaren 12an egina da.

4.— Euskararen Aholku Batzordea euskararen planifikazioaren alorrerako Eusko Jaurlaritzak —Lehendakari-tzan— duen organu kontseilaria da. Bertako partaideak gobernuak berak, Euskaltzaindiak eta UPV/EHU eta Deustuko Unibertsitateak izendatzen dituzte.

5.— Hizkuntza Gutxituen Aldeko Bulego Europarra. HIZGABE Europako Elkarre esparruan lan egiten duen nazioarteko erakunde aholkulari ofiziala da, hizkuntz arazoei dagokien. Hego Euskal Herriko ordezkari-tza EKBk darama.

6.— Kontuan izan BATEk "herri-erakunde" kontzeptua erabiltzen duela herri iniziatibaz sortutako erakunde, elkarre edo taldeak adierazteko, eta Mari Karmen Garmendiaren ahotan herri-erakundeak instituzio publikoak direla.

7.— Deian, 1990eko Apirilaren 5ean argitaratua.

8.— Elkar hizketatzaileok halaxe adierazi arren, galtzen ari den eredia A da. B eta D ereduak dira azken urteetan hazkunderik haundiena izan dutenak.

9.— Parisen Otsailaren hasieran urtero antolatu ohi den hizkuntzei buruzko nazioarteko erakusketa.

*Iñaki Camino
Joxe Jabier Iñigo*